

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko maiatzaren 04tik maiatzaren 10erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/07

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2024ko apirilaren 26ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira unibertsitate pribatuen, unibertsitate-zentro pribatuen eta graduondoko trebakuntza-zentroen Espainiako estatuko VIII. hitzarmen kolektiboko 2024rako soldaten berrikuspena eta horren araberrako soldata-taulak. **9131 xedapena- 4 or.**

2024/05/08

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2022ko abenduaren 13ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, saskibaloiko emakumezkoen klubetan diharduten saskibaloj-jokalarientzako hitzarmen kolektiboa erregistratu eta argitaratzen duena. **9300 xedapena- 26 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2024ko apirilaren 26ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita gaixoen eta istripua izan duten pertsonen osasun-garraioaren sektoreko enpresen eta langileen hitzarmen kolektiboari buruzko Auzitegi Nazionalaren epaia. **9301 xedapena- 9 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko apirilaren 25ekoa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen baitira 2023ko urriaren 5eko Ebazpeneko akatsak; ebazpen horretan albaitaritza-zentroen eta -zerbitzuen II. hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen da. **9302 xedapena- 6 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/05/08

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** EBAZPENA, 2024ko apirilaren 17koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpeko eskola-garraioko laguntza-zerbitzua eta jolastoki-zaintza zerbitzua ematen duten enpresa esleipendunen hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioaren akordioa erregistratu, argitaratu eta gordailutzen duena, 2023. urteko soldata-taulei dagokienez (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86002445012005). 2164e xedapena- 2 or.

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/07

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntzaren sektoreko hitzarmenaren negoziazio batzordearen akordio partziala erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000715011981). III-86 xedapena- 7 or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/04

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Euskal Autonomia Erkidegoa Hitzarmena.** Ebazpena, 2024ko apirilaren 26koa, Idazkaritza Tekniko Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoarekiko lankidetzeta-hitzarmena, kanpoko prebentzio-zerbitzu akreditatuen informazioa kudeatzeko SERPA aplikazio informatikoa erabiltzeko. 9017 xedapena- 6 or.

2024/05/08

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Terrorismoa.** PJC/406/2024 Agindua, maiatzaren 7koa, zeinaren bidez argitaratzen baita Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak onetsitako 2023ko Terrorismoaren aurkako Estrategia Nazionala. 9149 xedapena- 22 or.

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Merkataritza-erregistroa. Urteko kontuen ereduak.** Ebazpena, 2024ko apirilaren 23koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, urteko kontu kontsolidatuak argitaratzeko betebeharra duten subjektuek Merkataritza Erregistroan haiek aurkezteko erabili behar dituzten ereduei buruzkoa. **9150 xedapena- 2 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Merkataritza-erregistroa. Urteko kontuen ereduak** Ebazpena, 2024ko apirilaren 23koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, urteko kontuak argitaratzeko betebeharra duten subjektuek Merkataritza Erregistroan haiek aurkezteko erabili behar dituzten ereduei buruzkoa. **9151 xedapena- 2 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Atzerritarrak.** Ebazpena, 2024ko apirilaren 22koa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, 2024ko bigarren hiruhilekorako Okupazio Zailen Katalogoa argitaratzen duena. **9303 xedapena- 2 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Euskal Autonomia Erkidegoa.** Hitzarmena. Ebazpena, 2024ko apirilaren 15ekoa, Idazkaritza Tekniko Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako hitzarmena, bitarteko elektronikoen bidez funtziona dezan eraikuntzaren sektorean egiaztatutako enpresen erregistroak. **9299 xedapena- 6 or.**

2024/05/10

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Merkataritza-erregistroa. Urteko kontuen ereduak.** Ebazpena, 2024ko maiatzaren 8koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen baitira 2024ko apirilaren 23ko Ebazpeneko akatsak; ebazpen hori urteko kontu kontsolidatuak argitaratzeko betebeharra duten subjektuek Merkataritza Erregistroan haiek aurkezteko erabili behar dituzten ereduei buruzkoa da. **9391 xedapena- 87 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Merkataritza-erregistroa. Urteko kontuen ereduak.** Ebazpena, 2024ko maiatzaren 8koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen baitira 2024ko apirilaren 23ko Ebazpeneko akatsak; ebazpen hori urteko kontuak argitaratzeko betebeharra duten subjektuek Merkataritza Erregistroan haiek aurkezteko erabili behar dituzten ereduei buruzkoa da. **9392 xedapena- 304 or.**

- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA. Finantza-neurriak.** 2024ko maiatzaren 8ko Ebazpena, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinak eguneratzen baitu Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatu beharreko finantza-zuhertasunaren printzipioa definitzen duena. **9394 xedapena- 3 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/05/06

- **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA.** EBAZPENA, 2024ko apirilaren 25ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Graduako Ikasketen Gestiorako Arautegia argitaratzen duena. **2104e xedapena- 24 or.**

2024/05/08

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** 49/2024 DEKRETUA, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena. **2159e xedapena- 2 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/06

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** 3/2024 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, maiatzaren 2koa, zeinaren bidez «UEFA Champions League Femenina 2024» eta «UEFA Europa League 2025» txapelketetako finalei aplikatu beharreko zerga-araubidea arautzen baiten. **I-468 xedapena- 4 or.**

2024/05/09

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** 2024ko apirilaren 17ko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, Foru Dekretu Arauemaile hau berresten dauena: 1/2024 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezian eta Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergan neurri jakin batzuk egokitzen dituen, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondoriozko ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. **I-482 xedapena- 1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/05/07

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 187/2024 Foru Agindua, apirilaren 26koa, zeinaren bidez «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izena duen 587 eredu berria onesten baita, hura aurkezteko eta zergaren itzulketa eskatzeko modua eta prozedura zehazten baitira, etab. **3085 xedapena- 11 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO